

- Entzutekuak: Jorge Ortega, maskulinitatea lantzen institutuari
- Zer berri: 386.292 euro gutxiago 2011ko udal aurrekontuen proposamenean

soraluzeko
hamabostekaria **240.** alea
2011ko martxoaren 25ean

pil-pilean



**Japonia eta nuklearrak,
herritarrek iritzia eman dute**

IREKI BIDEA EZKERRARI

Abertzaletasunetik eta ezkerretik
munduari irekiak.
Ezker abertzalea sendotzen eta
XXI. mendeko
ezker zibil eta zabala eraikitzen.


aralar

Argazkia: Ikor Kotx

Xabier Leteren
abesti eta
poemekin
Herri
kantaldia
Soraluzen
2011ko apirilaren 9an,
gaueko 22:00 etan
Zinean

**AINARA OSORO****LOREA DE CASTRO**

FUKUSHIMA, MON AMOUR

Ikaragarria izan da Japonian azken astebetean bizi izan duten hondamendi kopurua eta hauen larritasuna. Munduko herrialde garatuenetarikoa izanik ere, ezin izan dute naturaren indarra gelditu. Lurrikarak, olatu erraldoiak... Ezbehar nuklearra gertatzeko aukera beraiek nahita hartutako arriskua izan da.

Bitxia da ikustea nola iritzi publikoak honelako gertakari serioen aurrean soilik erreazionatzen duen. Istripurik izan arte, energia nuklearraren gaia baztertuta eta ia ahaztuta egon da. Hala ere, energi iturriak eta kontsumo eredu modu serio eta zabalean eztabaidatzeko ordua aspaldi iritsi zitzaigun. Alde batetik, energi mota batzuek ingurugiroari edo osasunari sortzen dizkieten ondorio kaltegarriengatik. Bestetik, badakigulako ekoizpen eredu honen kontsumo erritmoa ezin izango dugula luzaro mantendu, ez delako ez ekologikoki jasagarria, ez eta bideragarria ere.

Energia hornikuntza eredu aldatzea posible da, zientziak arlo honetan aurrerapen asko egin ditu dagoeneko. Hauen erabilpena hedatzeko oztopo handienak baina, interes ekonomiko ezkutua atzean dira. Izan ere, energia baliabideek, uste duguna edo jakin ahal duguna baino askoz gehiago baldintzatzen dituzte bai barnepolitika eta baita nazioarteko harremanak ere. Seguruena, Afrikako iparraldeko herrialdeetan gertatutako gobernu aldaketek hartuko duten norabideak argi utziko du hori beste behin.

Bitartean, ikusi beharko da ia hasierako momentu latza pasa eta gero, gauzak aldatzeko ahaleginari ekingo diogun edo denborak ahaztarazi dezan utziko dugun.

Goguan hartzeko

Ur mehetan galtzen dana, ur handietan ito.
Gotzon Garate, euskal atsotitza

“

Istripurik izan arte, energia nuklearraren gaia baztertuta eta ia ahaztuta egon da.

Ainara Osoro

Petrolioia laster amaituko da; energia atomikoak uzten dizkigun hondakinak betirako geratuko dira.

Lorea de Castro

”

Datorren apirilaren 26an Txernobileko hondamendiaren 25 urte beteko dira. Orduan gertatutako gauza asko isilarazi egin zituen Sobietar Batasunak. Nahiz eta denbora asko pasa den eta gaur egun informazio iturriak edonoren eskura dauden, jende askok ez daki oraindik zer jazo zen benetan.

Gu ezin gara gogoratu, ni txiki-txikia bainintzen eta zu, Ainara, oraindik ez zeunden gure artean! Baina interneten bilaketa batzuk egitea nahikoa da giza-diaren historiako kapitulu ilun hari buruz pixkat gehiago jakiteko.

Orain Japonian gertatzen ari den bezala, orduan ere zentral nuklearreko leherketak laino toxiko bat eragin zuen. Laino hark munduari hiru bira eman zizkion eta Euskal Herriko zeruak ere zeharkatu zituen. Adituek barazkirik ez jateko gomendioa luzatu zuten, kutsatuta egon zitezkeelakoan, baina gobernuak ez zuen informaziorik zabaldu.

Badakigu, gaurenguegureduenergetikoa petrolioia eta nuklearretan oinarritzen dela. Petrolioia laster amaitu egingo da; energia atomikoak uzten dizkigun hondakinak, berriz, betirako geratuko dira gure artean, horrek dakarren arriskuarekin. Ze interes ilun eta ezkutu daude lurraren baliabideak kudeatzeko modu arduragabe horren atzean? 1832 urtean asmatu zen lehenengo kotxe elektrikoa, baina ordutik petrolioan oinarritutako botereek boikotatu egin dute bere garapena. Amaigabeak dira, gainera, urre beltzarengatik egin diren borroka, guda eta sarraskiak: Irak, Afganistan...

Bada garaia guzti hau aldatzeko, baina horretarako ezinbestekoa da herriak egia ezagutzea, beraz, informatu gaitezen!



GUTUNAK

Zuzenketa.
26.000€ haur-
tzaindegirako

Udal gobernuak 2011ko aurrekontuen zirriborroa aurkeztu ondoren gure taldeak ondorengo adierazi nahi du. Lehenik eta behin aurrekontuen memorian zehazten da egoera ekonomikoa oso kezagarria dela. Ez da txantxetako kontua. Bestalde aurrekontuaren partidak aztertu ondoren gauza batek harritu gaitu. Zirriborroan ez da diru partidarik zehazten haurtzaindegia beharretarako. Jakinekola da herri mailan haur kopuruak gora egin duela, ondorioz haurtzainde-

gia txiki gelditu da. Egoera honen aurrean gure taldeak zuzenketa bat aurkeztu du 2011ko aurrekontuari dagokionean. 26.000 euroko partida bat zehaztea haurtzaindegia beharrei aurre egiteko. Espero dugu udal gobernuak aintzakotzat hartuko duela gure taldeak eginiko zuzenketa... Informazio gehiago www.soraluzepnv.com.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Eskerrak denoi!

Aurreko domekan herriko mendi ingurua mendizalez bete zen Eibar, Arrasate, Antzuola, Aretxabaleta, Oñati, Deba eta Soraluzeko 400 lagunek aurtengo eskolarteko ibilaldi neurtuan parte hartu genuen eta. Izugarritzko giro aparta izan zen eta guztiok ederki asko pasatu genuen. Lerro

hauen bitartez, bolondres lana bete zuten denei eskerrak eman nahi dizkiegu, baita Izar Aterpe eta Ukiazelakoei, salda eta txorizo ederra gertatzeagatik!

Zorionak eta hurrengo arte, bejondeizula!!

Soraluzeko Mendi Taldea

© pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari-
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Niko Mendia

Eskubideak!!! Eta betekizunak?

Gure gizartean pertsona batzuk, eskubideak bakarrik dituztela sinisten dutela ematen du. Orain dela gutxi igogailu batean pertsona hilera bat zegoen hura erabiltzeko denak zain eta eskubideak bakarrik dituen pertsona horietako bat heldu zen. Bere txanda itxaron beharrean -igogailua publikoa zela esanez itxaron gabe bertara igo zen. Bere betekizuna ez zen besteen txanda errespetatzea, igogailua publikoa baita!

Kuriosoa da, pertsona honek bere eskubideak zeintzuk diren badakizki, baina irakurtzen ez. Derrigorrezko hezkuntza ez zuen egin edo aprobetxatu; berak betekizunik ez dauka, eskubideak bai ordea.

Beste behin eskolako patioan guraso eta seme alabez osatutako taldetxoan patinatzen ikusi nituen. Han etorri ziren eskubideak bakarrik dituzten horietako batzuk -nagusi bat eta bizpahiru mutiko- gasolinazko motor txiki batekin eta, eskubidea zutenez, motorrarekin aurrera eta atzera hasi ziren bertan zeudenei erreparatu gabe.

Zer gertatzen da horrelako pertsonekin? Nola egin bakoitzak bere betekizunak betetzeko? Zer erakusten diete seme-alabei? Zer nolako elkarbizitza lortu nahi dute gainontzeko herritarrekin?

Institutuan maskulinitatea lantzen

Jorge Ortegak maskulinitateak dituen eginkizunak landu berri ditu DBH institutuko 3. mailako mutilekin. Gazteek gizarte patriarkalak ezarritako rolak eztabaidagai izan dituzte egunotan; maskulinoa izateagatik sozialki bereganatu dituzten portaerak eta sentimenduak landu dituzte gehienbat.

Zer da zehazki ikastaroan landu duzuen?

Gizonok gizon jaiotzeagatik rol ezberdinak bereganatu behar izan ditugu, heziketaz eta hala-beharrez. Gizarte patriarkalak ezarritako rol hauek gure izaeran nola eragiten duten erakustea edo lantzen hastea da maskulinitate ikastaroaren oinarri nagusia.

Zeintzuk dira aipatutako rol edo jarrera horiek?

Gizonok gure burua menderatzeko nahi etengabea izan behar dugu, talde baten parte garelako sentitu eta arriskuak hartzeko eta oldartzeko beharra izan behar dugula erakutsi digute. Sentimenduak ez adieraztea edo arazoak konpontzeko etengabeko biolentzia erabiltzea gizonezkoen portaeren oinarrian ere badaude.

Heziketa eredu aldatu behar da orduan.

Bai, sentitu eta bizitzeko modu ezberdinak daudela jakin badakigu eta norbera emozioak eta bizipenak adierazteko nahi duen bidea aukeratzeko libre da, inongo rol motarik ezarri gabe. Heziketan dago oinarria eta beraz garrantzitsua da gaztetatik askatasuna lantzea.



Jorge Ortegak maskulinitatearen gaia landu du institutuko mutilekin

Eredua aldatuz, zer lortuko dugu?

Era guztietako biolentzia maila jaistea eta zoriontsuago bizitzea. Maskulinitate ez bortitzak, emozioak eta enpatia erakutsi ahal izango ditu.

Nola ikusten dituzu gaur egungo mutil gazteak?

Oso markatuak daude. Politikoki zuzenak izateari uzten diotenean, adin honetako gazteek argi eta garbi erakusten dute jasotako heziketa eredu sexistak. Bete-betean azaleratzen dituzte jendartearen indarreak dauden eta lehenago aipatutako balore "matxoak".

Heziketan zer dago zuzentzeko?

Haurren heziketan faktore askok eragiten dute, telebistak, publizitateak, kirolak... baina batez ere helduen jarrerak. Hauek zuzentzea eta heziketa patriarkalean oinarritutako jarrerak iraultzea ezinbestekoa da rol gabeko gizarte aske bat eratzeke.

“Heziketa patriarkaleko jarrerak irauli behar dira”

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Merkatu plaza gaineko lokalak auzolanean konponduko dira

Merkatu plazako lokala elkartentzako biltegi eta bilera-gela moduan egokitzeo egitasmoak bi fase izango dituela aurreratu du Mikel Leundak, udaleko euskara eta kultur teknikariak. Apirilean aretoa eta biltegi bat egokituko dira eta, aurrerago, bigarren biltegi bat eta bulegoa. Lanok auzolanean egitea da asmoa, berau erabiliko duten elkarteetako kideen artean. Biltetgia Pil-Pilean, Danborrada eta Urrats dantza-taldeak erabiliko dute hasiera batean.

Aretoa erabilera anitza izango du

Aretoa edozein elkartek erabiltzeko moduan izango da, aurrez eskaera eginda eta erabilera orduak koordinatuta. Bertan, bilerak, aurkezpen edo hitzaldiak egiteko aukera aurreikusten da. Behin obrak amaitzen direnean, argindarra ipiniko da eta ostean margotu. Argia udalak kontratatutako enpresa batek jarriko du. Margotze lanak eta biltetgiaren egokitzapena berriz auzolanean egingo dira, lehenago aipatutako elkarteen eskutik. Asmoa da Aste Santuko oporren bueltan areto berria erabilgarri gotea.




Kultur taldeek auzolanean eraberrituko dituzten lokalak

Bizikalek beste bi sari zozketatuko ditu

Bizikale merkatarik elkartek errifak banatzen dihardu elkarteko puntuetan erosketak egiten dituztenen artean. 250 euroko bi sari banatuko dituzte apirilaren 16a bitartean, egun horretan egingo baita zozketa eguerdiko 13.30ean, Plaza Barrixan. Oraingoan, errifetan norberaren izen-abizenak eta telefonoa ipiniko dira eta dendetan ipini dituzten kaxetan sartuko dira. Informazio gehiago bizikaleelkatea@gmail.com edo  638202651 telefonoan.

Xabier Lete omentzeko ekitaldirako sarrerak

Apirilaren 9an Xabier Lete omenduko dute Zinean, gaueko 22:00etatik aurrera eta sarrerak datozen egunotan kiroldegian jarriko dira  salgai, 5 eurotan.



Debara joateko autobus zerbitzu berria

Euskotren garraio konpainiak jakinarazi duenez, udan Soraluze eta Deba lotzen zituen autobus zerbitzua finkoa izango da hemendik aurrera eta autobusak erregulariki ibiliko dira bi herri hauen artean. Horrez gain, Soraluze eta Mendaroko Ospitalea batzen dituen zerbitzua ere mantendu egingo dute.

KZgunea egunero zabalduko da

Ikasturte hasieran ordutegi murriztua ezarri bazuten ere, datorren hiletik aurrera KZgunea egunero zabalduko dute, goizeko 9:00etatik 13:00era bitartean.

Eurite labur baina intentsua

Martxoaren 16an goizeko 10:00ak aldera izugarritzko ur putzua egin zen herri sarreran. Bi eguneko euri jasek Mendiola industrialde parean indartsu hartu zuten errepidea eta putzu handiak sortu zituzten. Urak kalte gehiago ere eragin zituen. Untzeta base-rirra bidean luizia egon zen eta bertara heltzeko mendi bidea itxi egin behar izan zuten.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Haurreskolako plazen eskaera bete da

Udala martxoaren 11n batu zen Eibarren Haurreskolen Partzuergoarekin, plazen eskaera eta eskaintzaren arteko arazoa konpontze aldera. Irailerako matrikulazioetarako 22 eskaera jaso ditu udalak. Haurreskolak 23 plaza dituzte, uste du irailerako eskatutako plaza kopuruak eskaini ahal izango dituztela. Azarorako plaza gehiago eskaini behar izanez gero, egungo haurreskolaren ondoan moduluak jartzea pentsatzen dihardute, partzuergoak hala proposatuta. Udalak lokala jarri beharko du eta Haurreskolen Partzuergoak zaintzaileak eta materiala.

Kirolean gurasoek duten garrantziaz hitzaldia

Hilaren 28an arratsaldeko 19.00etan, "Gurasoek ere jokatzeko dute" izenburupean hitzaldia eskainiko du Fran Garagarza Eibar Kirol Elkarteko koordinatzaileak Zinean. Helburua, futboleko aritzen diren umeen gurasoek kirolean jokatzeko duten papera aztertzea, gogoeta egin eta aholkuak jasotzea da.

Zapatuan ordua aldatuko da

Zapatutik domekarako gauean goizeko 02:00etan 03:00ak izango dira.



4.000.000 euro ingurukoa da 2011. urteko aurrekontua

Udal Gobernuak 4.021.708 euroko aurrekontu proposamena aurkeztuko du 2011rako; iazkoak baino 386.292 euro gutxiago izango ditu beraz aurrekontuak. Krisiaren eraginez diru sarreretan izandako jaitsierak eta Foru Aldundiak egindako diru itzulpen eskaerak behartu dute Udal Gobernuak gerrikoak estutzera. Horrekin batera udalaren zorpetze maila altua izan dela aipatu du Jose Luis Arizaga alkateak eta urtero ordaindu beharreko amortizazioek aurrekontuetan neurri zorrotzak hartzea behartu dutela udala.

Batzordeek %24ko jaitsiera izango dute

Langileen soldata jaitsiera, zerbitzu batzuk murriztea eta batzordeguztietako (Ongizatea izan ezik) aurrekontuak batzate beste %24 jaitea izango dira Udal Gobernu Taldeak 2011 urteari begira proposatutako neurri nagusienetako batzuk. Alkateak, bere aldetik, udala dagoen egoeratik ateratzeko behar diren neurri denak hartuko dituztela azaldu du. Oposizioak egin ditzakeen ekarpenen zain dago orain Udal Gobernu Taldea eta aurrekontuak apirilaren 6an bozkatuko dira, arratsaldeko 19:00etan egingo den udalbatzarrean. Herritarrak bertan parte hartzea gonbidatuta daude.



ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

JUAN MARI
XERRAINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

25. URTEURREN

ESKERAK ASKO PLAZENTZIARREI
GUCEN IZANDAKO KONFIANTZAGATIKI

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurrutua
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Japonia: Zeruan dago arriskua

Lurrikarak, tsunamiak eta Fukushima hiriko zentral nuklearretako erreaktoreen ezteandek astindu dute Japonia. Baita mundu osoko herritar eta agintariak ere, energia nuklearraren inguruko eztabaida plazaratuz. Japongo testigantza zuzenak eta nuklearren aurkako aktibistaren hausnarketak jaso ditugu.

Shinohara Gakuji japoniarra Yokohaman bizi da, lurrikararen jatorritik 450 kilometrotara. Pil-pileaneko lankide baten ezaguna izanda, iritzi eske joan gatzazkio. Kontatu digunez lurrikarak etxea astintzen zuen bakoitzean kanpora alde egiten zuen, “*lurra bera gure oinen azpian mugitzen zela nabaritzen zen*” dio. Kalte haundirik ezzuen izan: “*Etxean ez zen ezer apurtu. 10 metro inguruko altuera duten zuhaitzen puntak ezker-eskuin mugitzen zirela*”. Japoniar asko kaltetutako zonaldeetik ihesean dabil, inguru seguruen bila. Nahiz eta, antza denez, bakar batzuk ez duten bere etxea laga nahi: “*Bertako jendearen artean badaude han bizitzen jarraituko dutela dioten pertsonak, beraien arbasoen jaioterria dela azaltzen dutenak*”.

“Ez dakit zein argibide den fidagarri eta zein gezur hutsa”

Hondamendi haren atzetik, Fukushimako zentral nuklearrak egotzi dituen aire erradiaktiboetara aurre egin beharko diote. Gakujik azken egunetan jendearteko giroan kezka, beldurra eta urduritasuna

azpimarratu ditu: “*Etxekoekin hitz egin dut erradiazioetik ihesean Japoniako hegoaldean hilabete batzuk pasatu ditzagun. Azkenean aukera hura erabat baztertu dugu. Orain inoiz baino denbora gehiago igarotzen dut komunikabideei adi-adi; hemengo agintarietara eta argindar enpresek esaten dutena erraz aldatzen dute. Ez dakit zein argibide den fidagarri eta zein gezur hutsa*”.

Hiroshima eta Nagasakiko bonba nuklearrarekin horrenbeste sufritu duen herriak energia nuklearrak hornitzen du herrialdea. Gakujik dio bertan jendeak desberdin ikusten dituela arma nuklearra eta argindarra sortzeko zentralak: “*Japonia herrialde industrialala denez gero jendea argindarrari esker hain eroso bizi dela eta, argindarraren beharra ez da sekula gutxitu izan*”. Ez du uste Japoniak zentral gehiago eraikitzeko aukera behin-betiko baztertuko duenik: “*Argindarrak ematen dizun erosotasuna kontuan hartuta, ez dut uste. Halere nik pertsonalki baztertzea nahiko nuke*”.

“Japoniak ez du baztertuko energia nuklearra”

Shinohara Gakuji
Euskal Herrira eginiko bisitan.



Kontakizuna herritarren ahotik

Badira Japonian bizi diren soraluzetarrak ere. Ramon Bereicuak eta Inazio Oregik urte mordoan daramate bertan bizitzen. Biak ala biak goera onean daude.

Inazio Oregi 30 urterekin joan zen Japoniara, je-suita, eta Yamaguchi probintzian bizi da, lurrikararen erdigunetik 1500 kilometrotara: *“Hiru jesuita bizi gara hamen eta telebista ikusten gendela jakin genduan gertatutakuan berri. Eskerrak herri populatuenetan ez dala izan, bestela, 20 bider*



Ramon Bereicua soraluzetarrak 51 urte daramatza Japonian.

Inazio Oregi Yamaguchi probintzian bizi den herritarra.



hildako gehixago egongo ziran” dio. Gorputzean lurrikararen dardara maiz sentitu du: *“Zona haretan ixa egunero egoten dira. Nik bizi izan ditut eta gorputza dardara batian lagatzen dotsu”* aitortu du.

2000 lurrikara urtean

Ramon Bereicua misiolari marista joan zen duela 51 urte. Koben bizi da, lurrikara gertatu zen tokitik 800 kmtara. Momentu horretan Koberuntz zihoan kortexean eta honek ere ez zuen ezer igarri.

Horrenbeste urte bertan, Bereicuak ere askotan bizi izan ditu lurrikarak: *“Bataz*

beste 2000 lurrikara egoten dira urtean. 1995ian 6000 hildako eragin zittuan Kobeko lurrikara haretatik bizirik urtendakua naiz ni eta holakuetan argi geratzen da zientziak ezin dabela naturan indarran kontra”.

Bereicuak japoniarren izaera sendoa azpimarratu du eta hondamendietatik ateratzeko indarra beti lortzen dutela: *“Japoniarrak portaera estoikua dauke, gogorra eta karakter haundikoa. Gertatutakua ikusi eta gero, zaila da etorkizuna aurreikustia. Hala eta be, hamarkada batzuk barru suntsitutako zonaldea berreraikitta egongo dala uste dot”.*

Ramon Bereicua: “Zientziak ezin dau naturaren indarraren kontra”

Hiroshiman eta Nagasakin gertatutakoaren ostean, zela da posible Japoniak hainbeste zentral eraiki izana?

Japonia potentzia ekonomiko bat da baina daraman garapen erritmorako ez ditu energia iturri asko. Horregatik, bere industria eta ekonomia hornitzeko energia nuklearra behar du. Denera 54 zentral ditu, AEB-n atzetik nuklearren munduko bigarren potentzia da eta Lur planetako zonalde sismikoenean kokatua dago.

Ze kalte izango dituzte Fukushima zentralaren inguruek eta bertan bizi direnek?

Ondorioak begibistakoak izaten ari dira japoniarrentzat, oinarritzko elikagaiak erretiratu dituzte, kutsaduraren lehen sintomak ageri dira herritarrengan... baina hemendik aurrera erradioaktibitate deribatutako benetako osasun arazoak ikusiko dira, leuzemiak, minbiziak...urte luzeetan zehar. Ezin dugu ahaztu Txernobil eta Harrisburg-etik eratorritako gaixotasunak oraindik ere agertzen direla.

Guri ere eragingo al digu?

Kontu haundia izan behar dugu Japongo produktuekin, arraina edo mariskoarekin esaterako. Izan

MIKEL ETXEBERRIA, nuklearren aurkako aktibista

“Japoniak 54 zentral ditu munduko zona sismikoenean kokatuta”

Mikel Etxeberria (1953, Sorluze) 70. hamarkadan hasi zen nuklearren aurkako mugimenduetan parte hartzen, Lemoiz, Endata-Deba, Ispazter edo Tuterako proiektuen aurkako giroan. Nuklearren kontrako Soraluzeko komiteko partaide izan zen, Euskadiko antinuklearren koordinadorearen baitan. Energia nuklearren gainean hitz egin dugu berarekin.



ere, erradiazioa atmosferatik dator, euriaren bitartez lurra, landareak eta ura zikintzen ditu, desagertzeko ehundaka eta milaka urte behar dituen sustantziez zikindu ere. Kutsadura erradioaktiboaren baitan, gama altuko eta baxuko hondakinak daude eta bakoitzak bere desintegrazio prozesua du. Horietako batzuen 500.000 urte luzatzen da.

Kaltea egina dago, baina zer atara daiteke hone-tatik?

Fukushimak gogoeta egiteko balio behar digu. Jatorri nuklearreko erradiazioaren efektuetan pentsatu behar dugu. Balio behar digu baita garapenerako ze eredu behar dugun eta zelako bizi kalitatea nahi dugun erabakitzeke.

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Japoniako lurrikararen ondorioz, zentral nuklearren segurtasuna ezbaian dago orain. Energia iturri indartsua izan arren, arriskutsua ere badela frogatu zen Txernobilen. Hala ere, estatu buruek energia honen alde egin dute azken urteetan, zentral gehiago eraikiz.

Energia nuklearra etorkizuneko energia dala uste dozu?

JUAN ROKE LARRAÑAGA

Tornilerixako langilea



Nuklearran kontra nago eta ez neuke esango etorkizuneko energia bat danik. Segurua ez dala dinue eta ni neu ez nintzake zentral baten onduan biziko. Energia barriztagarriren alde egin bihar da.

AINHOA UNAMUNO

Proiektu teknikarixa



Ez dakit, ez dago in-formazino asko, ez da erreza erantzutia. Politika energetikuak berrikusi bihar ko lirake. Segurtasun neurriak kontrolatu eta ez hondamendixak darenian bakarrik. Oin, Soraluze ez neuke bat nahi.

ANE ARISTI


Ikaslia



Gero eta gehixago zaintzen dogu ingurugirua eta hori ikusitta, ba ez. Baina ez dakit horrenbeste energia bestela nundik etarako genduken. Hori bai, Soraluze ez neuke bat ipiniko, Txernobilgua ikusi eta gero...

JEFRY CID

Ikaslia



Ez, inundik inora. Insegurua, kutsakorra... dana dauka txarra. Energia barriztagarrixa, naturala erabiliko neuke. Hamen zentrala eraikitzia nahiko balebe, kontra egingo gontsake. Nuklearrik ez!

Eman zure iritzia sarean



KM
Desing

Diseinua eta Formena

Poligono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

MABE
ILEA PAINDEGIA



ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1. behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06

T. 943 75 16 00

F. 943 75 24 61

aras

DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako tornilluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

Gure herriko historia eta gertaerei buruzko bloga sarean

"Mayores con iniciativa" proiektuaren bitartez "Soraluze Gogoan" bloga sortu dute herriko hainbat lagunek, Aitor Madrid KZguneko arduradunaren laguntzaz. Blogean XX. mendeari ateak zabaltzen dizkiote eta sasoi hartan Soraluzen izandako gertakizunak azaltzen ahalegintzen dira, argazki, testu eta bideoen bitartez. Herritarren parte hartzea bultzatzeko asmoa ere badu aipatutako blogak, argazki zaharrak zabalduz adibidez eta hauek soraluzegogoan@gmail.com helbidera bidali behar dira.

Blogaren helbidea: www.soraluzegogoan20.blogspot.com

Folk kontzertua Eibarren

Bihar arratsaldeko 20:00etatik aurrera **Nicolas Pellerin** et **Les Grands Hurleurs** folk taldearen kontzertua ikusteko aukera izango da Eibarko Coliseo antzokian, Gaztelupeko Hotsak ziguilaren eskutik. Ameriketako talde honek Euskal Herrian eskainiko duen aurreneko kontzertua da biharkoa. Hiru abeslarik eta askotariko musika tresnek osatzen dute taldea, biolinak, gitarrak, mandolinak, kontrabaxuak eta perkusioak esaterako. Quebecoko Felix de l'ADISQ Saria jaso berri dute, musika tradizionalari emandako albumik onena osatzeagatik.

Kultur agenda

APIRILAREN 1ean, barixakua
Musika Esk. KONBO EMANALDIA.
Arratsaldeko 19:00etan, Zinean
Ant: Soraluzeko Musika Eskola

APIRILAREN 1etik 12ra
ERAKUSKETA:
"Emakume eta gizon homosexualak historian zehar". Inaugurazioa: Apirilak 1, barixakua 19:00etan
Ant: Udaleko Emakumearen Batzordea

Korrika Batzordeak Euskaraz bizi Eguna antolatu du

Maitatu, ikasi, ari... Soraluzeko Euskalakarri! lelopean egitarau anitza, euskalduna eta parte hartzailea osatu du Soraluzeko Korrika Batzordeak 27. ediziorako. Martxoaren 24an hasi eta apirilaren 17ra arte euskalkulturaz

jantziko dute herria. Korrika Kulturalaren ekimen aipagarriena izango da aurten lehenengo ospatuko den Euskararen Eguna eta ume, gazte zein heldu gonbidatuta daude egun osoko euskararen festa erraldoira.

EGITARAUA

MARTXOAREN 24an, eguna:

KANTU AFARIA. 20.30ean Gaztetxean

* Izena ematea: Gaztetxean, Arranoan eta Gaztelupen

* Kantuak aukeratzeko, Gaztetxean.

MARTXOAREN 27an, domeka:

MENDI MARTXA. Deba-Lastur-Deba.

Historia ikuspegia landuz, eskualdea ezagutzen. 09.40an, Debako tren geltokian.

MARTXOAREN 30ean, eguaztena:

UDABERRI KONTZERTUA musika eskolaren eskutik.

19.00etan Zine Aretoan.

MARTXOAREN 31n, eguna:

SEKULA BAI antzezlan

20.30ean, Eibarko Coliseoan

APIRILAREN 1ean, barixakua:

AIN_1 taldearen musika-poesia-dantza

22.30ean, Zine Aretoan.

APIRILAREN 2an, zapatua:

EUSKARAZ BIZI EGUNA PLAENTXIAN

11.30etan, pailazoak Plaza Barrixan

12.00etan, EHE 30 urte, dokumentala, Elizako lokalean

13.00etan, Dantza ikuskizuna, Zubian

13.30etan, Euskararekin jolasean, Gaztetxean

15.00etan, Herri bazkaria, Kalebarrenean

Ondoren, bazkal ostea Berni kantautorearekin.

19.00etan, Xero Xietterekin erromeria, Zubian

* Bazkarirako txartelak salgai: Iratxo, AEK, Arrano eta Gaztelupen

APIRILAREN 6an, eguaztena:

EUSKARAZKO FILM LABURRAK

20.00etan, Zine Aretoan



Sagardotegi giro bikaina

Edan jan baino hobeto egin zuten orain bi asteburu Pil-pileanekin Altuna sagardotegira hurreratu ziren 36 lagunek. Trikitia eta pandero doinuak lagun, Urrietako sagardotegian jan, edan eta dantza lepo egin ostean Hernanira hurbildu ziren jai giroarekin jarraitzera. Iluntzeko 21:00ak inguruan herrira itzuli ziren denak poz-pozik!



Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

MARI MAR HARATEGIA

Gurean
Euskal Herriko
produktuak!

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kaldea, 4 Soraluze

Ligaxkako lehen puntuak ihes egin dio Laskuraini

Aurreko domekan Eibarko Astelena pilotalekuan binakako txapelketako finalerdietako ligaxkako lehen partidua jokatu zuten Gonzalez eta Laskurainek, Xala eta Barriola bikotearen aurka. Jokoaren hasiera nahiko berdindua izan zen eta



Gonzalez eta Laskurain, elastiko gorriaz, aurretik ipini ziren hainbatetan. Baina Xalak eta Barriolak ez zieten horren erraz aldegiten lagako eta urdinek alde handitzea lortu zuten 6-14 idatziz markagailua. Gorriek gogor ekin zioten aldea jaisteko baina ez Xalak ez eta Barriolak ez zuten irabazten uzteko inolako asmorik, eta 22ra heltzen lehenak eurak izan ziren. Aritz Laskurain baina itxaropentsu dago datozen partidak jokatu eta emaitza onak lortzeko. Eibarko Astelena egindako akatsak konpondu ezkeron finalera heltzeko indartsu ikusten du Gonzalezekin batera osatzen duen bikotea. Bihar neurtuko dituzte indarrak Olaizola II eta Begino bikotearen kontra, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Partida arratsaldeko 17:15ean hasiko da eta Nitro katetik emitituko dute.

Pala txapelketako bikoteen zozketa

Torturaren Aurkako Emakumeen Pala Txapelketa maiztzean hasiko bada ere, datorren eguaztenean, hilak 30, parte hartuko duten bikoteen zozketa egingo dute Arrano Elkartean arratsaldeko 19:00etan. Bileran txapelketako egutegia zehaztuko dute bertara

hurreratzen direnen artean. Guztira 30 emakumek eman dute izena. 15 bikotek hartuko dute parte beraz aurtengo txapelketan, denak Soraluze, Eibar eta Elgoibarkoak. Bi hilabete inguru luzatuko da txapelketa, San Andres auzoko jaietan finala jokatzeko.

Errealzaleak pozik urteurrenarekin

Martxoaren 12an eta 13an herria kolore txuri-urdinez bete zen, Txuri-urdin elkartearen 8. urteurrenako ospakizunetan. Zapatuan Elgoibarko Mausitxa txarangak kaleak alaitu zituen eta puzgarriak ipini zituzten umeendako. Bazkalostean kale antzerkiak gozatu zuten txikiak eta domekan autobusa bete zuten Errealak ikustera joan zirenek.



Iturria: Luis Gonzalez

EMAITZAK

PELOTA

Eskuz Binakako IX. Txapelketa

Saralegi – Apraiz	15
Gonzalez – Laskurain	22
Xala – Barriola	22
Gonzalez – Laskurain	17
Atxotegi – Castillo	9
Ojuel – Landaburu	22

Elgetako 4 terdian

Atxotegi	22
Martin	6

FUTBOLA

Ostadar K.F "B" – Sora (Erreg.)	1-0
Sora (Erreg.) – Beasain	2-1
Sora (Erreg. B.) – Trintxerpe "B"	1-1
Eibartarrak "B" – Sora (Erreg. B)	3-2
Sora (Jub.) – Zestoa	6-3
Bergara "B" – Sora (Jub.)	1-2
Ilintxa – Sora (Kad.)	3-1
Sora (Kad.) – Aloña Mendi "B"	1-5

AGENDA

PELOTA

Barixakuan Debarroko txapelketa

Atxotegi – Andreu
Arrasateko bikotea

Zapatua 26, 17:15ean

Iruñeko Labrit pilotalekuan

Olaizola II – Begino
Gonzalez – Laskurain

FUTBOLA

Zapatua 26, 17:00etan Ezozin

Sora (Erreg.) – Landetxa K.T.

Zapatua 26, 18:00etan Ibarra

Aretxabaleta K.E. – Sora (Erreg. B.)

Domeka 27, 10:00etan Ibarra

Aretxabaleta K.E. – Sora (Kad.)

Domeka 27, 17:00etan Ezozin

Sora (Jub.) – Ilintxa



Astlehenero kirol albisteak

ZORION AGURRAK



Maddi Plata
Martxoaren 29xan 7 urte.
Zorionak mari sorgin!



Leire Ginea
Martxuan 18xan 32 urte!!
Zorionak polittori!
Etxekuak!



Enara Carretero eta Oier Cid
Martxuan 23an eta 24an urtebete!
Zorionak bikote! Etxekuen eta familixian partez.
Muxu haundi bat!!



Irene eta Maria!
Martxuan 25ian eta apirilán 4an 9 eta 6 urte
betetzen ditzuzelako! Zorionak, etxeko printzesak!
Askó maitte zaittuegu! Muxu haundi-haundi bana!



Jose Antonio Gil
Apirilán 19xan urtiak
betetzen ditzuzelako muxu
haundi eta besarkada bero
bat etxekuen partez!



June Hernandez Muro
Apirilán 4an 6 urtetxo!!!
Zorionak printzesa!!!
Muxu pila bat familixakuen
partez! Muuuuuuaaaaa!



Ezozi eta Anton Akizu
Apirilán 1ian 8 urte! Zorionak maittiak!!
Patxo asko etxeko danon partez!



Jose Ayora eta Inma Plata
Martxuan 12xan eta 29xan utiak betetzen
ditzuzelako! Zorionak aita eta ama!
Ondo pasatu urtebetetze egunian
eta maitte dotsuegunekin ospatu!!



Iraultza Ostolaza
Martxuan 20xan 8 urte!
Zorionak polittori!
Koloretako ametsez betetzen
gaittuzu! Maitte zaittugu!
Muxu asko denon partez.



Haritz Zabala
Otsailán 28xan jaixua!
Ongi etorri Haritz! Zorionak tia Ane eta
tio Oskar! Askó maitte zaittuegu!
Iraultza, Oihan eta Sugar.



Ane Ugalde
Martxuan 21ian 28 urte!
Zorionak eta muxu
hauuuuundi bat
lagunen partez!

jaiotakoak

NAYALA ANDRADE HERNANDEZ



LEHIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**


► **Saria: Juan Mari arrandegian 30 euro gastatzeko bonoa.**



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea: Jose Antonio Gil**

► **Pedri Lete,**
da aurreko aleko argazkixan
agertzen zan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Pedri Lete

SAN MARTZIALEN

Erretratu honek 52 urte bete ditu, 1959. urtian jasota dago San Martzialen, ermitaren ondoan.

Argazkixan:

Zutik, ezkerretik eskumara: Sebastian Aldazabal †, Victor Lacuesta †, Fran Lete eta Sara Lete †

Jarritta, ezkerretik eskumara: Libe Lacuesta †, Irma Aldazabal, Victor Aldazabal †, Maria Luisa de la Fuente, Oscar Aldazabal, Edurne Lacuesta †, Txaro Lete eta Pedro Lete.



LUIS CASARES PRADO

1996KO MARTXOAREN 24AN
15. URTEURRENA

“Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin.”

Etxekoak



GORENAK

EUSKAL HERRIKO
SAGARDO GORENAK
SIDRAS SELECTAS
DEL PAIS VASCO

EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK

SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA



HAEK IZAN DIRA AUKERATUAK.
PROBARIK GOGORRENAK GAINDITU DITUZTELAKO.
KALITATE ETA PROFESIONALITASUNEAN NAGUSI DIRELAKO.
HORREGATIK DARAMATE SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.

1- Etxebizitza

Salgai:

- Soraluzen, Errabal kalean etxea salgai. Hiru logela, bainugela, jangela, eta sukaldea. Berrituta dago eta bizitzera sartzeko moduan. 80 metro karratu.
- Gabolatx kalean etxea salgai. Bi logela ditu, sukaldea, jangela eta bainu gela. Oso argitsua eta bizitzeko moduan dago. Prezio oso ederra. 70 metro karratu.
- Baltegieta kalean etxea salgai. Hiru logela ditu, jangela, sukaldea eta bainugela. Oso argitsua da eta bizitzera sartzeko moduan. Oso prezio interesgarria du. Deitu lasai eta galdetu.
- Zeleta auzoan etxea salgai. Bi logela, sukaldea eta bainugela ditu etxe honek. Gasdun berogailua de eta etxea berrituta dago. Bizitzera sartzeko prest dago. Eskaintza ona.
- Serafin Atxotegi kalean etxea salgai. Etxe oso polita, hiru logela ditu, bainugela bat, sukaldea eta jangela. Etxe guztia berrituta dago eta altzariekin. Bizitzeko prest.
- Kalonje kaleko 4.ean etxea salgai. Etxe hau hiru logela, jangela, bainugela bat eta sukalde batek osatzen dute. Balkoi eder bat du eta oso argitsua da. Berehala bizitzera sartzeko aukera dago. Interesatuek deitu 649759078 mugikorrera (Ainhoa).
- Gipuzkoa Etorbidea 24-5B pisua salgai. Interesatuek 617347906 telefonora deitu.
- Etxebizitza salgai Gipuzkoa Etorbidean. Deitu 605744466 telefonora (Mariaje).
- Pisua salgai: Ezozibidean, 28zka, 3. eskuma. Bizitzera sartzeko prest, altzairuz betea, berritua, berogailuarekin, kanpora ematen du eta altura bikoitzeko kamarote espaziosua. Telefonoa: 646-52 26 59.

2- Lana:

Lan bila:

- Larunbat goizetan garbiketa lanak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. 666 815 008-679 878 676
- Modistak era guztietako konponketak egiten ditu Gabolatx kalea, 29, 1 Telefonoa, 666 815 008 / 679 878 676.
- Modistak era guztietako arropak konpondu eta josten ditu, prezio onean. Errabal kalea 6-1 eskuma. Telefonoa: 634 841172 edo 943 751711.

- Mutil arduratsua lan bila dabil. Brotxa fin eta lodiko margolaria naiz, errotuluak egiten ditut, azulejuak jartzen ere badakit, umeak edo nagusiak zaintzeko prest nago, sukaldean badakit eta garbiketak ere egiten ditut. Interesatuek, 672 952424 telefonora deitu edo 943 751711 telefonora.
- DBH eta Batxilerguan klase partikularrak emateko prest nagan soraluzetar bat naiz. Deitu lasai! Ander, 656718510.
- Pertsona nagusiak zainduko nituzke asteburuetan edo gauetz. Garbiketa lanak egingo nituzke baita, astebarruan. Disponibilitate osoa dut lanean hasteko. Harremanetarako: 689 761 487.
- Adinekoak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Erreferentziaduna. Telefonoa: 943-75 30 49.

Langile bila:

- Lehen mailako ile-apaintzaile ofiziala behar da, esperientziaduna. Interesatuek, 943 530 000 telefonora deitu.
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesa baduzu 685 765267 telefonora deitu.
- Ajuste eta muntaia mekaniko lanak egiteko pertsona behar da. Gutxienez 6 urteko esperientzia izan behar du. Bidali kurrikuluma: 309 postakutxa, 20800 Zarautz. Harremanetarako: 699014349.

3- Garajeak:

- Garajea errentan. Interesatuek deitu 669 145 893 telefonora.
- Garajeak salgai, Estazio Kaleko 2 eta 3 zenbakietan. 19. 250 eurotan. Interesatuek, 94 480 26 60 telefonora deitu.
- Garajea salgai Errekalde auzoan. Interesatuek deitu 649 127 560 telefonora.
- Garaje plazak eta biltegi txikiak alokatzen dira. Deitu: 627 700 851 edo 649 82 47 63 (Arantxa).
- Garajea saltzen da Zeleta kalean, bi autorentzako lekua du. Harremanetarako: 676745347.

3- Denetarik:

- 100 litroko termo elektrikoa eta hiru erradiadore elektriko salgai. Interesatuek 679 363123 telefonora deitu (Mariasun).
- Umearentzako kotxea salgai. 3 aukera ditu, etzanda joateko, maxikoxia eta ohiko kotxea. 320 euro 943-75 19 17 Iñigo.
- Bizikleta saltzen dut, duela bost hilabete doikuntza eginda duena. Prezio oso interesgarria. 943-75 14 91.

Atal honetako iragarkiak doan dira. Iragarki guztiak, soraluze.iragarkilaburrak.com helbidean daude eta baita, www.plaentxia.com helbidean. Kontaktuak bertan. Iragarkiak jartzeko: 943 75 13 04 telefonora deitu edo www.plaentxia.com-en soraluze.iragarkilaburrak.com